**1948:** Milizia sionistek burututako eraso eta atentatu askoren ostean, britaniarrek aginteari uko egin eta NBEaren esku utzi zuten arazoak.

Egun berean Israelek haren independentzia alde bakarrez aldarrikatu eta NAKBA-ri (hondamendia) hasiera eman zion. 13.000 palestinar erail, 750.000 erbestera bultzatu, eta 400 herri inguru birrindu zituzten.

NBEak, 194 ebazpenean, errefuxiatuen itzulera baimenzeko eskatu zion Israeli, honek, ordea, muzin egin zion.

**1967:** Sei Eguna gerraren ondorioz Israelek eremu arabiarra okupatu zituen, besteak beste, Zisjordania, Gaza, Eki-Jerusalem, Egiptoko Sinai eta Siriako Golana gailurrak.

NBEk, 242 ebazpenaren bidez, okupatuko eremuetatik tropak erretiratzeko exijitu zion Israeli, hauiek, berriz, ebazpenari muzin egin eta okupazio sistema gero eta bortitzagoa ezarri zuten eremuetan.



**1987:** Okupatutako Eremuetan lehenengo intifada piztu zen, alegia, herri matxinada ez-bortitza Palestinako Estatuaren autodeterminazio eta independentzia aldarrikatze aldera.

**1988:** Palestinako Batzar Nazionalak, Palestinako Estatu Burujabea aldarrikatu zuten. Honen presidenteak, Yaser Arafat-ek, Estatuaren onarprena eskatu zuen NBEren Batzar Orokorraren aurrean.

**1991:** Madrilen Ekiadde Ertainari buruzko bake biltzarra egin zuten. Bertan etorkizuneko negoziaketetarako oinarriak ezarri zituzten.

**1993-95:** AEBek Osloko Akordioak susstatu zituzten Palestina eta Israelen artean, ustez, Palestinako Estaturantzako eta Israelgo armadaren erretiradarantzako

lehen urratsa zirelarik. "Bake akordioa" delakoaren bitartean, ordea, kolonien kopurua bikoitzu zuten Eremu Okupatuetan. 2000 kolonia eta 400.000 kolonotik gora izatera heldu ziren. Gainera kontrol militarrak eta mugikortasunaren murziketa areagotu zituzten.

Palestinako Aginte Nazionala sortu zuten, alegia, behin-behineko gobernuaren organoa eta etorkizuneko estatuaren hazia.

**2000:** Israeldarren bortizkeria areagotu zen. Lurraok okupatzen jarraitu zuten koloniak eraikitzeo. Ariel Sharon-ek Mezkiten Lautada bisitatu zuen militar talde batek eskolatuta eta ekintza irain-garri honek Bigarren Intifada piztu zuen. Milaka palestinar hil ziren israelgo armandaren erasoetan.

Camp David-eko negoziazioek porrot egin zuten.

**2002:** Liga Arabiarak bake ekimena eskaini zion Israeli, hots, onarprena eta bakea eskaini zioten 1967an okupatutako eremuetatik alde egitearen eta errefuxiatuen auziari konponbidea ematearen truke.

Israelek muzin egin zion proposamenari eta Jerico ez beste hiri palestinar guztia militarki okupatu zituen. BANAKETA HARRESIA eraikitzeari ekin zioten, hasierako aurreikuspenen arabera 400 kilometroko, Zisjordaniako eremu okupatutan. Haga-ko Nazioarteko Justizia Auzitegiak ilegalizat jo zuen 2004ko Ekainaren 9an.

**2005:** Israelek Gazatik 8.000 kolono atera eta Zisjordanian 30.000 sartu zituen. Horren ostean Gazako zerrenda erabat itxi zuen.

**2006:** Eremu Okupatuetan egindako hauteskundeetan Hamas-ek irabazi zuen. AEBek, Europako babesarekin, zigorak ezarri zizkion gobernu berriari, laguntzak moztu zizkion, eta alderdi nagusien arteko tentsioak elikatu zituen.

**2007:** Otsailan Hamas-ek eta Fatah-ek, Mecako akordioen ondorioz, batasun nazionaleko gobernu sinatu zuten, Ekiaddean, ordea, apurtu zuten. Fatah eta Hamas-en arteko gatazkak hasi ziren, ondorioz 100 lagun hil ziren Gazan eta Hamas-ek zerrendako kontrola bereganatu zuten. Mahmud Abbasek palestinar gizarte zibilak zalantzak jarriko zuen larrialdi gobernu ezarri zuen.

Israelek erabat blokeatu eta bakartu zuen Gazako zerrenda.

Annapolis-eko biltzarra ospatu zuten AEBetako babesapean, helburua 2009 baino lehen Estatu Palestinar bat sortzea zuelarik.

**2008:** Israelek isolamendu politiko, ekonomiko eta soziala ezarri zion Gazari eta oinarrizko elikagaien, medikamenduen, erregaien eta argindarraren sarrera blokeatu zuten. Hiru egunetan zerrenda erasotu eta 100 palestinarretik gora hil zituzten, tartean 31 haur.


2008ko Maiatzaren 15ean 60 urte beteko dira Nakba (hondamendia) hasi zenean: 60 urte palestinarrek errefuxiatu bihurtu zirenetik, 60 urtez giza eskubideen etengabeko urraketak pairatzen, 60 urteko baixerketa eta apartheid-a, 60 urte lurraok esproprietu zizkienetik, 60 urtez nazioarteko komunitatearen axolagabekiaren aurrean borrokatzen. Hori dela eta dei egiten diogu gizarte zibilari hondamendi hau gogoratzera, exodoa eta suntzipena salatzera, eta babea eta justizia aldarrikatzera.

# PALESTINA GAUR: GENOZIDIOAK DARAI

## APARTHEID HESIA:

Israelek azken urteetan Palestinarrei euren lurrikentzeko eta beren lurrardeetatik ateratzeko martxan jarri duen neurri lotsagarrienetako Apartheid Hesia da. 2002. urteko uztailaren hasi ziren hesia eraikitzen. Bi urte geroago, 2004ko uztailaren 9an, Hagako Nazioarteko Zigor eta Justizia Epaitegiak banaketa hesia «legez kanpoko eta nazioarteko legeen aurkakoa» zela ebatzi zuen. Nazio Batuen Erakundeak, berriz, 2004ko uztailaren 20an, hesia eraikitzea gaitzetsi zuen, eta eraikitze lanak bertan behera uztea eta hesia botatzea exijitu zuen. Israelek ez du inoiz bete ebaZen hori, besteak beste Israelek ez dituelako nazioarteko ebaZenak betetzen. Banaketa Hesiaren proiektuak 786 kilome-

tro diu; gaur egun 413 kilometro daude eraikita, eta beste 90 kilometro eraikitze bidean dira. Hesiaren proiektua amaitzen denerako, Palestina historikoaren %12ra murriztuta geldituko da egungo Palestina. Gainontzko %88 Israelen jabetza izatera pasako da. Horiek horrela, 1948ko maiatzaren 14an Israelek Estatuaren sorerra alde bakarreko aldarrikatu zuenetik, Palestina 27.663 kilometro koadroko lurralde bat izatetik 3.320 kilometro koadroko lurraldetxo bat izatera igaro da, barne loturariak gabekoa, banandua eta bakartua. Hesia segurtasun arrazoiengatik egingo balitz, Ierro berdea esaten zaion mugari jarraituz eraiki beharko lukete, hots, 1949. urteko lehen gerra arabiar-israeldarren armistizioaren mugan barrena. Errrealitatea agerian utzi dituk, beste behin, Israelen gezurak.



## KOLONIAK:

60 urte hauetan Israel palestinarrei lurra lapurtzen egon da etengabe, jabetutako lur horietan legez kanpoko koloniak ezartzeko, besteak beste. 460.000 kolono israeldar daude 1967an okupatutako Palestinako lurrardeetan, 260.000 Zisjordanian eta 200.000 Jerusalem ekialdean. Bertan eurentzako soilik eta propio eraikitako errepide eta azpiegituraz baliatzen dira. Israelek urtero izugarrizko dirutzak bideratzen ditu Zisjordanian hamarnaka legez kanpoko koloniak egi-

ten jarraitzen. Okupatutako lurralde palestinarrek soilik gauza bakarra ikusi dute azken hamarkadetan: kolonia sionisten hazkundea. Kolonia horiek lur palestinarrik hartzen dituzte; egunez egun koloniek gero eta lur eremu handiagoak hartzen dituzte. Lehen kolonak 1978. urtean hasi ziren ezartzen lurralde okupatuetan, baina kolonien hazkundea 90. hamarkadan eman zen, Osloko akordioen garaian; teorian, akordio horiek 1967. urtean okupatutako lurraldeetan zeuden koloniak bertan behera uzteko balio izan behar zuten. Koloniak, palestinarrei euren lurrik onenak lapurtzen jarraitzen beste estrategia bat.



## JERUSALEM:

Jerusalemen judeizazio prozesuak gelditu gabe dirau, nahiz eta Nazio Batuen Erakundeko 181. ebaZenak Jerusalem estatu arabiarraren eta juduaren artean erdibanatzeko ezarri. Berriro ere Israelek nazioarteko legedia urratzen du. Zati arabiarraren erdia baino gehiago kolonizatu du eta jadanik Jerusalemen eremuaren %76 bereganatua du. Judeizazio politika hauek lursailen desjabetzeen bidez, arabiarren etxeak suntsitzu, arabiarrei erakuntza-baimenak ukatuz eta oinarrizko zerbitzu eta laguntzak ezeztuz egiten dira, eta gehienbat kolo-niak eraikiz. Nahiz eta Jerusalem Ekiadoko lagunek (arabiarrek) Mendebaldekoen (jeduak) zerga berbe-

rak ordaintzen duten, udaleko aurrekontuen zati txiki bat besterik ez dute jasotzen. Hau errepeideak edo argiteria bezalako oinarrizko azpiegituraren erraz antzeman daiteke, denak hondatua eta baster utziak baitaude Jerusalem hiriko udalbatzarraren erruz. Baino Israelgo gobernuaren ezaugarri arrazista azpimarratzen duen datu deigarriena zera da: Jerusalemgo arabiarren 'hiritartasun' estatusaren ukapena, 'Egoile' estatusa bakarrik ematen zaie, eta hau funtsik gabeko edozein arrazoiengatik gal daiteke: 'justifikaziorik' gabe beren herrialdetik aldentzea, Zisjordanian Israelen baimenik gabe egotea, zergaren bat ez ordaintzea... Hori guztia honako helburua lortze aldera: arabiar populazioaren kanporatzea, hiriaren erabateko judeizazioa lortu arte.

## ERREFUXIATUAK:

Errefuxiati guniek hamaika istorio jasotzen dituzte; Israelgo estatuak suposatzen duen basakaria eta herri palestinarren arteko borroka desorekatu honek 60 urte betetzen dituen honetan, gizakien onena eta txarrena batzen dituzten istorioak biltzen dira errefuxiati gunetan. Bilatu gabe ere, etxe bakoitzean, izkina bakoitzulo errefuxiati gunetako kalezulo estuenean istorioek gain egiten dizute: borrokako istorioak, minez betetako istorioak, sufrimenduen istorioak, erresistentzia istorioak, duintasun istorioak, pertsona umilen txikitasunetik kontatutako istorio handiak, naturaltasun handienarekin kontatutako istorioak.

2008. urteko maiatzean Israelgo Estatuaren sorreraren 60. urtemuga beteko da. Baino antolatuko diren ospakizun horien txanponaren beste aurpegiak ez du festari ez omenaldirik ospatuko. Al Nakbaren edo hondamendiaren urtemugaz mintzo gara. Hondamendia edo katastrofea; hori izan baitzen, zehazki, Palestinako herriak 1946 eta 1949. urteen bitarteetan bizi izan zuena.

Israeleko estatuaren sorrera ez zen izan ekintza isolatua izan, palestinarren garbiketa etnikoa helburu zuen plan baten atal nagusiena izan zen, Iban Pappe histori-

ari israeldarraren hitzak erabiliz. Sionismoak palestinako herriaren aurka daraman politikaren eredu, finean. Estatu sionistaren sorreren ondorio zuzena Palestina historikoaren lurren %78aren nahitaezko desjabetzea izan zen, eta berta-ko herritarren %80aren kanporatzea.

1949ko abenduaren 8an Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorrak 302 ebaZenpena onartu zuen; beraren bidez UNRWA agentzia sortu zuen, palestinako errefuxiatuentzat sortutako agentzia berezia. Helburua sionisten indar armatuek euren etxeetatik bidalitako 914.000 palestinarrei irtenbidea ematea zen. Etxeak, lurra, landak, harremanak ostu zitzaizkien. Euren bizimodua, finean.

Gaur egun herri palestinarra osatzen duten hamar milioi lagunetik ia %70 errefuxiatuak eta desplazatutako barne populazioa dira; horietatik 4,3 milioi errefuxiatu bezala daude erregistratuak Ekiadole Hurbilean. Horietatik soilik heren bat, (1,4 milioi lagun gutxi gora behera), 59 errefuxiati gunetan bizi dira. Errefuxiati gunetako bizi baldintzak ikaragarri gogorak dira, azpiegitura prekarioekin, bizitza duin bat aurrera eramatea guztiz galarazten duten konten-trazio eremuak. Populazio dentsitatea ikaragarria da, eta horrek baldintza iraingarriean biziaraztea

derrigortzen die errefuxiatu palestinarrei.

Eta, hain zuzen ere, argi izan behar dugu UNRWA ez zela sortu errefuxiattako populazioaren arazoa konpontzeko. Gaurko egunez UNRWA hondamendi humanitarioa posible egiten duen sisteman aurpegi atsegina izaten jarraitzea du. Nazioarteko Kooperazio eta Garapen agentzia guztiak sortutako helburua bera izan zen: karitatea ematea, baina justiziariak gabe.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 13. artikuluak honako dio: euren etxea utzi behar izan zuten pertsonek euren abe-riertara itzultzeko eskubidea dute. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Hitzarmenaren 12. artikuluak jasotzen du inori ezin zaiola arbitrarioi ukatu euren jato-rizko herrialdera itzultzeko aukera. Nazio Batuen Erakundearen Kontseilu Gorenaren 194 ebaZen-penak palestinar errefuxiatuen itzule-ra eskubidea onartzen du. Hori guztia horrela izan arren, Israelek nazioarteko legedia kontutan hartu gabe harzen jarraitzen du, errefuxiatuei edozein eskubide mota uka-tuz. Mendebaldeko herrialdeak, berriz, nazioarteko legedia bete eta betearaztea derrigortuta egon arren, finean Israelek egiten dituen gizateariaren aurkako krimenen konplize bihurtzen da.

## GAZA:

365 kilometro koadro dituen lurralde txikia da Gaza, eta bertan 1.470.000 lagun bizi dira, horietatik %80 pobreziaaren mugaren azpitik. Bizimodu gogorra eta jasangaitza da. Azken urteetan Israelek Gazako herritarren aurkako genozidioarekin jarraitu du; batetik bertako azpiegitura nagusiak suntsituz, eta, bestetik ehunka palestinar hilaz. Iragan urtean 346 izan ziren, horietatik 76 haurrek.

Israelek genozidio honekin jarraitzen du, betiere nazioarteko komunitateko konplizitatearekin. Aire libreen dagoen kartzela bat da gaur egun Gaza. Israelek kontrolatzen du, Gaza 'kontzentrazio-esparru' bat bihurtuz. Guztia, dena, Israelen kontrolpean dago: aire eremua, itsas eremua eta

baita lurreko mugak ere. Israelek erabakitzentzu du elikagairik sartzen diren ala ez, eta, baita ere pasabidea irekitzen duenean zein elikagai pasako diren edo ez. Israelek erabakitzentzu du ere sendagarria sar daitezkeen eta zein motatakoak. Bainan okerrena da inork ez duela mugimendu askatasunik.

Palestinarra baldin bazara, berdin dio gaixorik bazaude edo Gazatik ospitaleren batera aterar behar baduzu; ez du axola zure ama hil bada eta Europatik (han bizi zarela) hiletara joan nahi baduzu. Edozein kasutan %99ko aukera daukazu soldadu israeldarrek pasatzeten ez uzteko. Zure argudioek ez dute axola, zure beharrak, zure baimen ofizialak, berdin dio Nazio Batuen Erakundeko kide izatea edo pertsona xume bat. Israelek erabakiko du sar zaitezkeen ala ez, atera zaitezkeen ala ez. Israelek erabakitzentzu du noiz eta nola.



## RESISTENCIA:

Nazio Batuen Erakundearren 42/195 ebazpenak, 1987ko abenduaren 7ko, herri orok okupaziotik defenditzeko eskubidea duela esaten du. Erakunde bereko 242 ebazpenak, 1967ko, Israeli exijitzen dio Gaza eta Zisjordaniako lurralde okupatueta alde egin behar duela. Bi ebazpen hauetan oinarririk, palestinarrek, eskubide moralaz gain, legezko eskubidea dute edozein erresistentzia mota egiteko: erresistentzia pasiboa, erresistentzia eraginkorra, desobedientzia zibila eta baita ere erresistentzia armatura. Beraiek bakarrik aukeratu beharko dute zein

motatako erresistentzia den egokiiena une eta egoera bakoitzean eta palestinar herria da zein estrategia jarraitu behar duen erabaki behar duena.

Hortaz, ez dugu ahaztu behar hilketa guztien errudun bakarra Israelgo estatu arrazista dela, bai palestinarrena, bai israeldarrena ere. Kanpoko gizarte zibilok baldintzarik gabe lagundu behar ditugu palestinar herriaren borroka eta bere bidezko erresistentzia (erresistentzia mota edozein dela ere). Palestinarren borroka justiziaren aldeko borroka da, herrien askatasunaren borroka, duintasunaren aldeko borroka.

## Ilan Pappe, historialari israeldarra

# "Palestinan etengabeko Nakba bat ematen da"



**Ilan Pappe Israeleko 'historialari berriak' gisa ezagutzen den taldeko kidea da; azken urteetan Israeleko Estatuak asmatutako historia eta mitoak bertan behera uzteko lanean ari dira.**

**-Zeintzuk dira eskoletan Israeleko haurrei erakusten zaizkien mito historikoak?**

-Lehenengo mitoa hutsik zegoen lurraldarearea da: sionismoak lurrik gabeko herri bat herrikoan gabeko lur bat emanen ziola, alegia. Noski Israeldarrek jakin badakitela lur honetan beste herri bat egon badagoela, baina eskoletan haurrei irakasten zaie mugimendu sionista heldu aurretik Palestina hutsik zegoela. Bigarren mitoa da 1948. urtean palestinako jendeak bere kabuz utzi zuela herrialdea; mundu arabiarrak arabiar armaden inbasio bat prestatze aldera lurra uzteko eskuatu zielat, eta horregatik erabaki zutela alde egitea. Horrela, Israelek ez du zertan erantzukizun moral edo politiko bat bera ere ez bere gain hartu behar. Hirugarren mitoa da 1948. urteaz gerotzik Israelek beti bakaera bilatzen duela, eta mundu arabiarrak, berriz, ez. Burdinezko harresia liburuak argi erakusten du egoera askotan Israel izan dela bakaera errefusatu duena. Beste mito bat da Palestina borroka armatu guztia terrorismoa dela. Israelek Paletinako Askapen Erakundea eta gaur egun Hamas askapen mugimen-

duak izan ordez erakunde terroristak direla konben-tzitzea lortu du.

**-Zein izan da historialari berrien zeregina mito horiek bertan behera botatzeko ahalegian?**

-90. hamarkadan pentsatzen nuen historialarien eginkizuna oso garrantzitsua zela Israelgo iritzi publikoa aldatzeko. Gaur egun ezkorragoa naiz. Gauza berri asko eman dira ezagutaraztea, eta Israelgo soziologoek eta historialarien historia ofizialaren mitoak desegin dituzten arren, palestinarrek esaten dituzten gauza asko egiazkoak direla frogatu arren, Israelgo iritzi publikoa ez da aldatu. Uste dut 'historia berriaren' garrantzia Israelek kantzen dagoela: lehendabizi Mendebaldean eta, bigarrenik, uste dut palestinarentzat garrantzitsua izan zela ikustea Israeleko akademikoek eurekin aliantza bat sor zezaketela.

**-Palestinaren garbiketa etnikoa ezinbesteko garrantzia izan zuen Israeleko Estatua sortzeko orduan. ¿Bere helburuen parte izaten jarraitzen al du?**

-Bai, uste dut 1948. urteaz gerotzik ideia hau existitzen dela: proiektu sionista burutu eta Estatu judutarra izateko modu bakarra ahalik eta Palestinaren zatirik handiena lortzea da, ahalik eta palestinar gutxienez. Ideologia hau ez da aldatu. Israeleko 'azpiegitura ideologikoaren' parte da.

Hala ere, ez dut uste honek esan nahi duenik palestinar oro kanporatua izateko mehatxupean bizi denik edo bihar bigarren Nakba bat izango dugunik. Uste dut Israelek azken 20 urteetan ez duela proiektua bukatzen presarik; 1948. urtean jendearen kanporatze masiboa bat behar zuen Estatua sortu ahal izateko, eta 1967an palestinarrik gabeko ahalik eta Zisjordaniaren lur zatirik handiena hartu nahi zuen. Orain egiten dutena da palestinar komunitatea talde ezberdinat bereiztu, eta orduan esaten dute 'talde hau arriskutsua da'. Gaur 'arrisku-

tsuen' taldea Gazako herria da. Ahal izango balute Egiptora kanporatuko lituzkete. Duela urtebete molestatzen zien taldea Jerusalen Handiko palestinarrek ziren, lur eremu hori Israeleko parte izan dadila nahi dutelako; orduan bertako 250.000 palestinarrek kanporatzen dituzte; ez aldi batean, gradualki baizik. Hori dela eta ez dut ikusten 1948. urteko Nakba moduko bat bezala, baizik eta Nakba jarraitu bat, uneoro gertatzen dana.

**-Zuk esana da: "Bakea bake prozesu batengatik ordezkatzea Israeleko bakearen eremuaren estrategia nagusia bihurtu da".**

-1948. urteaz gerotzik, Israeleko elite politikoak Mendebaldearen parte izan nahi du, eta bi uren artean ibili beharra dauka: batetik Estatu etniko eta arrazista bat mantendu, eta, bestetik, kanpora begira Estatu demokratiko baten irudia eman. Noski, bi gauzak bateraezinak dira. Hori lortzeko moduetako bat bake prozesua etengabe mantentzea da, horrela Mendebaldeko jendeari esan diezaioketelako. 'Bai, okupazioa dugu, lurren desjabetzea, diskriminazioa, baina hori gatazkaren ondorio da. Guztia gatazka amaitzearekin bat bukatuko da'. Baina ere berean ez dute nahi gatazka amaitzea, bizirauteko duten modua delako, palestinarrek Palestinatik botatzeko modua delako. Prozesua aurrera eraman da prozesuaren onurako, ez konponbide bat lortzeko.

**-Israel Apartheid Estatu bat da?**

-Bai, hiru esparrutan. Bata legala da: apartheid legeak daude lur-sailen jabetzari dagokionez; judatarrak ez direnak ezin dute lurrik izan. Gizarte zerbitzuetan, hezkuntzan eta beste hainbat alorretan judatarrak ez direnak diskriminatzen dituzten legeak daude. Arabiar izate hutsagatik jende multzoak diskriminatzen dituen praktika politikoak ere egon badaude: ez zaizkie Estatuen gainontzeko herriarrei eskaintzen dizkien onura berdinak ematen, eta zerbitzu horiek ukatu egiten zaizkie uren jatorri etniko edo nazionalaren

arabera. Eta azkenik apartheid moral dago, judutar gehienen buruan palestinarrak gizartearen parte zilegi bat ez direnaren ideia sortzen duena. Ez da politika bat, atmosfera bat baizik, mentalitate bat. Eta nire ustez hau da apartheidaren atalik okerrena. Ez da Hego Afrikan bezala, banandutako autobus eta komunak zeudela. Hau definitzeko modua 'apartheid txikia' da, nahiz eta askotan okerragoa den apartheid ikusezin honetan bizitzea: ez duzu ikusten baina sentitzen duzu.

**-Palestinako estatu baten sorrarako 1967ko mugetan oinarritzen dira, Gazan eta Zisjordanian, Palestina historikoaren %22an. ¿Posible al da bidezko bake bat lortzea lurraren %22an oinarrituz?**

-Uste dut ez dela benetako eta luzaroako bakerik lortuko palestinarrek lurren %22arekin kontentatua beharko direnaren ideian oinarritzen bada. Lehenik, ez dago lurren %22a eman nahiko lizkieken israeldar bat bera ere ez, edozein kasutan lurren %10az hitz egiten ariko ginateke. Bigarrenik, ez dut ikusten nola gelditu litekeen mugimendu abertzale normal baten borroka soilik bere herriaren %22 askatuta. Edo bestela konponbide ez nazional batera goaz, konponbide postnazionala; kasu horretan ez lirateke bi gizarte sortu behar. Gainera, arazoaren muinari begiratzen badiozu, ez da soilik lurraren arazo bat, baita ere desjabetzen itzuleera eskubiderik gabe oso zaila izango da esatea gatazka konpondu denik. Azkenik, lekuaren tamainari eta arazoan murgildutako jendeari erreparatz gero, barregaria da pentsatzea lurra zatitu dezakezula. Hori dela eta bi Estatuen konponbideak ez duela funtzionatuko konbentzitu behar dugu jendea. Jada ezin dira sortu Palestinan bi gizarte homogeneo. Moralki ere uste dut Estatu bakarraren konponbidea kolonoen, bigarren belaunaldiaren eta sorterriko herrien arteko adiskidetzea lortzeko modu bakarra dela.

Gladys Martinez Lopezek Diagonal egunkariarentzat egindako elkarritzeta: <http://www.diagonalperiodico.net>

**Samia Shannan, emakume palestinarra**

# “Palestinan bizitzea eustea da”



**Hiru urte zituela, Samia Shannan-ek Palestina utzi egin behar izan zuen, familia osoarekin batera, 1948ko okupazioak era-gindako egoera ekonomiko latzatik ihesian. Urte harten, Israelek, NBEaren onesprena lagun, Palestinako lurraren %52 okupatu eta ehundaka mila palestinar euren lur eta etxeetatik bota zituen soinean zeramatena besterik ez zeukatela eta erbestearitu bilakatu zituen. Berez kaxkarra zen egoera ekonomikoak okerrera egin zuen. Ez zegoen lanik, ez dirurik, ezta aurrera ateratzeko aukerarik ere.**

Zenbait urte geroago eta asko borrokatu ostean, herrira itzuli eta Ramallah-n familia bat osatzea lortu zuen. Jarraian, administratiboki Jerusalem aldekoa den bere etxe berritik gure galderai erantzun-go dizkie. Israelek palestinarrei ezartzen dizien trikitimailu burokratikoak direla medio, asko euren eskubide legalak galten ari dira eta horrexek hain zuzen bulztatu ditu gaur egungo bizilekura.

**-Zer sentitzen du ama batek bere alabak okupaziopean hazi behar direla ikustean?**

-Gure familia zorionekoia izan dela uste dut. Hezkuntza ona eman ahal izan diegu alabei eskolan zein unibertsitatean,

eta familiatik gertu hazi ditugu. Esan beharra dago, halaber, gure alabek okupazioak eragiten dituen sufrimendu eta samina ikusi dituztela gertu-gertutik, hala nola, kartzelaratuak senideak, hil zorian daudenak, manifestazio batean eraildako ikaskideak, unibertsitateko lagun atxilotuak, itaunduak, zigor handiak ezarritak, kalean balaz erailak... amonaren etxea inbaditu zutenekoa. Etxeratzeko aginduak; egunak eta egunak etxetik atera ezinik, eta terrazara ateratzearen ere beldur; amonarenera joaten garen bakoitzean check-pointak zeharkatu behar izatea; zuzenean pairatzen ditugun jazarpenak zein beste batzuek nola pairatzen dituzten ikusi behar izatea; 2002ko inbasioan tankez inguratuta izan genuen etxea ia hilabete batez; inbasioaren ostean kalera atera eta Ramallah guztiz birrinduta ikustea... nire betiko beldurra zera da, ez ote zaien noizbait hiae tokatuko. Palestinarrek diren aldetik ezin dut ekidin -eta ez dut nahi- zenbait jardueratan parte har dezaten, baina, aldi berean atxilotu ditzaten beldur naiz beti, edo zer edo zer larriagoa egin diezaieten.

**-Zer da zure herrian gustukoen duzuna?**

-Batzueta uste dut gogorregia dela bere seme-alabekin, hemen bizitzeak dakaren samin eta sakrizioaren truke Palestinak gehiago maite beharko gintuz-

kel. Egoera hau amaigabea da. Ezingo gaitzute inoiz ere akabatu eta guk ez dugu sekula amore emango. Beharbada, egungo mundu ordenean zerbait aldatuko balitz, eta nazioarteko komunitateak eta haren erakundeek egoera honi amaiera emateko esku hartuko balute, normaltasunez bizi gitezke. Baino hala eta guztiz ere beti izango naiz leku honi lotuta. Edonora bidaiatzen naizenean, berehala sentitzen dut bueltatzeko grina. Palestinan, edozein egoeratan zaudela, beti izango duzu zutarren lagunza (sen diarena, lagunena, eta ezagunena ere).

## Nolakoa da amesten duzun Palestina?

-Herrialde laiko bat, benetako demokrazian (ez estatubatarrek egurrez ezarri nahi diguten sasi-demokrazia). Munduari irekitako herrialde bat, non munduko edozein hiritar lasaitasunez eta pakean bizitzera etor daitekeen; hemengo biztanleen oinarrizko beharrak bermatzen dituena, hezkuntza, etxebizitza eta lana. Batetik okupaziotik libratu beharko ginatuke eta bestetik palestinako agintearren ustelkeriatik.

## Utziko al zenuke Palestina?

-Ez, nire sorterra da eta. Nire eginbeharra da hemen bizitza, izan ere, hemen bizitze hutsa ere erresistentzia da neurri handi batean. Haiek jenderik gabeko lurra nahi dute eta gure eginbeharra da ez dezatela lurra errez bereganatu. Jakina, mundutik jasotzen duten babesak gu gogaitzen lagunten die, alegia, lurra lapurzen, edozein ekonomia propioaren garapena eragozten, gure bizitzako alderdi guztiak kontrolatzen... baina haien asmoak oztopatu behar dizkiegut. Egoera ekonomikoa dela eta, gutako batzuek aldi batez lan bila, goi mailako ikasketak egiteira, edo beste edozein arrazoia dela medio alde egiten badute ere, itzuli behar dugu beti. Eta itzultzen garen bitartean sartzeko eskubideari eutsiko diogu, ugazabek ematen diguten erresidentzia eskubideari, alegia. Izan ere, eskubide hau galduz gero ezingo ginateke berriro sartu. Horixe irakatsi nahi izan diegu gure alabei, eta oker ez ba nago, uste dut lortu izan dugula.

## NORTZUK GARA?

### Komite Internazionalistaken

Komite Internazionalistetan 25 urte daramatzagu elkartasun internazionalistaren munduan eta herrialde ezberdinak erakunde ezberdinekin harremanetan, beste herrialdeetako errealitateak eta borrokak ezagutu asmoz, esperientziak eta errealitateak aldatu, eta joan eta etorrizko elkartasun bat aurrera eraman, gure inguruaren euren borrokak zabalduz eta bizi dugun mundu globalizatua honetako injustizia eta bidegabekeri guztiak salatzu.

Brigadak gure lanaren ezinbesteko atala dira, eta helburu hauek dituzte, besteak beste:

-Bisitatzen ditugun errealitateen eta herriren borrokak ezagutu; horretarako gertu gertutik biziko ditugu euren esperientziak gure egondian.

-Harremanetan gauden eta urte osoan zehar lan egiten dugun era-kundeekin ditugun loturak sendatzeko.

-Urtez urte gero eta lagun gehiago gure erakundera hurbildu dadin eta bere borrokekin bat egin.

-Azken finean, gure itzulerarako lanez bete gaitezen, itzultzen garen transmititu dizkigutun errealitateen sensibilizazio eta borrokarekin jarraitzeko.

Gainera, eta batez ere, gure helburu politikoekin bat datozen munduko bazter ezberdinatzen borrokatzenten dute lagun eta erakundeek eskatzen dituelako, gure elkartasuna eta babesarekin borroka komunean jarraitu ahal izateko.

### Harremanetarako

**BILBO:** Calzadas de Mallona, 1. Email: Kibilbo@herriak.org. Tlf.: Lokala: 944790703 (09:00-14:30) Astelehenetik Ostiralera eta 20:00-22:30 astearteetan. Mugikorra; 699687087

**DONOSTIA:** Iruresoro plaza, Egia (Asteazkena 19:30-21:00). Tlf.: Lokala: 943286504. Mugikorra: 635009870

## IZURRITE PALESTINARRA

### Santiago Alba Rico

Zaila da zalantzan jartzea palestinarra, herria baino, izurritea, garatxo, orbana direla. Adostasuna ez da inoiz horren aho betekoia izan: denak bat dato, garatxo erre egin behar da, gizateriaren gorputzetik erauzi behar da, mapatik ezabatu behar da. Denak: Israel - noski-, palestinarren izateak berak bere biziraupen gaiztoa mehatxatzen duelako; AEBak, palestinarrek euren hedapen imperialista oztopatzetan dutelako; EB, palestinarren justizia aldarrikapenei enbarazu egiten dietelako; gobernu arabiarrak, palestinarren saminarik gabe hobe-

to menderatuko lituzketelako euren herriak; eta Palestinako hainbat agintari politiko ere, herritar palestinarrek traba baino ez direlako euren errendizio interesatu egitasmoak burutu ahal izateko.

Erromar zirkoan, eta bota sekretua balitz, munduko nazioen %90ek begi onez ikusiko luke palestinar guztiak behin-betiko garbitzea. Denek hartuko lukete lasaiago arnas azken palestinarrek batera, muturreko injustizia bermatzeko, etengabeko krimena burutzeko beharra desagertuko balitz.

Ongi dakite palestinarrek, desagertu ezean, inongo amore ematek ez dituela haien arerioak asetuko. Negar egiten badute, negarretan dauden bitartean akabatuko

ditzute; erregutzen badute, mespretxuz hilko dituzte; belaunikatzen badira, belauniko garbituko dituzte. Horrexegatik, palestinarrek ez dute negar egiten, ez dute erregutzen, eta zutik diraute.

Duintasuna izurrite bat da, garatxo bat, orban bat. Defendatutako teilitu bakoitzak, berreraikitako horma bakoitzak, birlandatutako olibondo bakoitzak, landatutako tomate bakoitzak, hondakinen artean erditutako haur bakoitzak, eta ezkutu bihurtutako ama bakoitzak, duintasunez kutsatzen dute behin eta berriz Palestinako lurra. Eta zutitzen diren bakoitzean -minuturo-, duintasun-kutsatzaileak amorruz fumigatzen ditugu, misilez, gizatasunik gabeko mundu baten garbitasuna berreskuratzeko ahaleginetan, alferrik.

## ISRAELI BOIKOT EUSKAL EKIMENA

Palestinar egoeraz zerbait entzun edo ikusten dugunean, berehala laguntzeko gogoa pizten zaigu. 'Zer egin dezakegu egoera honen aurrean?' Kontuan hartuta bakoitzaren asmo onak eta bakoitzak ahal duena eman dezakeela, asko dira egoerai buelta emateko martxan jarri ditzakegun neurriak: mobiliza gaitezke, kalera irten eta

gure agintariei neurriak hartzeko exijitu, egunkarietan kexak idatzi, salatu, Palestinako egoera informatu, Palestinako egoera bertatik bertara ezagutu... eta boikota ere erabili dezakegu israeldar gobernu zein jendartea presionatzeko neurri giza, Palestinaren aurkako sarraskiarekin bukatzen.

2004. urtean "Israelen aurkako zigor, boikot eta desinbertsio kanpainia" hasi zen Palestinan. Mundu guztian, Palestinarekin

elkartasuna lantzen dugun erakundeok horretan lanetan ari gara. Israeleko talde antisionistek eta palestinarren herriak bultzatutako kanpaina dugu. Boikot hau arlo guztietan egin liteke: boikot ekonomikoa, kulturala, akademikoa. Aukera bat da Israeleko produktuak ez erostea. Erakunde akademikoak Israeleko erakunde edo unibertsitatekin elkarlanean ez aritzea. Boikota hitzaldi, kultur eitaldi edo kirol ikuskizunetara luzatu liteke. Boikotak Hego Afrikako sistema arrazista suntsitzeko erabili zen, eta emaitza

onak eman zituen. Zergatik ez Israeli derrigortu?

<http://www.israeliboikot.org>

